



Itziar Elizondo

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Bizitza kutsatuak

Zer ikasiko dugu bizitzaren ari garen konfinamendu egoeratik? Zer ondorio izango ditu horrek guztiak gure ikuspuntu, jarrera eta ekintza politikoetan, pertsonaletan zein sozial-komunitarioetan? Eta gizartean? Izan ere, egoera horrek are ageriago utzi ditu sistemaren zuloak, gabeziak eta gehiegikeriak.

Lehen eta behin ohartu gara pertsona eta gizarte gisa deriba tekno-individualistan sartuta egonagatik, izaki gorpuzdun, xume, ahul eta sozialak garela. Alegia, norbanakoen bizitzak besteekin ehuntzen direla, gainditzen gaituzten situazioetan hurbilekoekin elikatzen dugula gure izate nimenoa, eta komunitateko bizikideekin elkarlanean atera gaitzekela aurrera. Hori izan daiteke lehen ikasketa.

Bestalde, argi eta garbi ikusten ari gara *vademecum* liberalak ganorazko gizabanako produktiboa izateko inposatzen dizkigun pilula-balio nagusiek huts egiten dutela krisi egoera baten aurrean: gure artean lehia-tzeko abiarazitako grina, mozkinak zanpa-zanpa jateko irrika, kontsumitzeko bulimia, ego apetak... ez dira, ez jauna, beraien hitzekin esanda, emankorrak.

Justu kontrara.

Elkartasuna, norbanakoaren en-gaiamendua hurbilekoekiko eta komunitatearekiko, eskuzabaltasuna, lan indarra gaixoen eta ahulen mesedetan jartzea, tresna publikoen efikazia, inbertsio publikoak... dira eta izango dira krisi hau bideratuko dituztenak, materialki larrialdi hone-tatik aterako gaituztenak. Labur eta kutsatu gabeko nabardurarekin esanda: benetan produktiboak diren balio eta ekintzak. Eta, jakina, per-tsonak: egoera larri honetan, zein-

tzuk ari dira zaintzen, zeintzuk amankomunaren alde jarduten, zeintzuk bere osasuna arriskuan jar-tzen gaixoeekin egoteko? Langileen energiak eta beraien lana dira, zalan-tzarik gabe, bizitzaren eremu guz-tiak sostengatzen dituztenak, espe-kulatzaileek, burtsako yuppiek eta gainontzeko parasitoek beren luxuz-ko konfinamendua Instagramen era-kusten duten bitartean.

Eta azkenik: etxean konfinatuta gure bizitza pertsonala ispiluan ikusteko aukera dugu. Ikusteko, bestela esanda, non jartzen ditugun helburuak, non indarrak, zeri ematen diogun garrantzia eta zeri ez. Edota ohartzeko zenbateraino ka-muflatzen dugun egunerokoa pantai-

lak baliatuta, eta zer-nolako ohiturak metabolizatu ditugun oharkabea.

Sareetan ari gara ikusten itxial-dian bizitzen ari garena erromanti-zatzeko joera, edabe batekin «buenismo»-ak aztikeriaz dena konponduko duelakoan. Ez, ez da izango gure *postureo* emozionala egoera honetatik aterako gaituena, gure buruarekiko, besteekiko eta gi-zartearekiko konpromisoa baino. Dena da politikoa eta une hau bere-ziki. Pandemia agertu aurretik gure bizitzak jada kutsatuta zeuden, eta akaso konorabirusak etorri behar izan du horretaz jabetu gaitezen eta gizarte gisa, aitzakiarik gabe, zer egiten ari garen behin betiko ikus dezagun. •



Arenal zahar egoitzako langileak, zaintzaren lehen lerroan.

Marisol RAMIREZ | FOKU